

Eskola kirola - 2025-2026eko lehiaketa araudia

PISTAKO BOLEIBOLA

1. PISTA BOLEIBOLARI BURUZKO ARAUDI OROKORRA

Pista boleiboleko kirolean, sei jokalariko (minibolei 4) bi taldek hartzen parte hartzen dute sare batek erdibanatzen duen jokaleku edo kantxa batean.

Jokoaren helburua da baloia sarearen gainetik kontrako zelaiko zorura etengabe bidaltzea, eta baloiak norberaren zorua ez ukitzeko ahaleginak egitea. Baloia eskubiko atzelariak jartzen du jokoan sakea eginez. Sakea egiteko, baloia eskuarekin jotzen da, eta sarearen gainetik eta kontrako zelaiko hagaxken bitartetik bidaltzen da.

Talde bakoitzak baloiari hiru ukitu emateko eskubidea du (blokeoko ukituaz gain), baloia aurkariaren zelaira berriro bidaltzeko. Jokalari batek ezin dezake baloia bi aldiz segidan ukitu, blokeoan izan ezik.

Jokaldiak aurrera jarraituko du baloiak zorua ukitu arte, "kanpoan" deklaratzeko den arte edo talde batek arauzko hutsegite bat egin arte. Boleibolen, hutsik egiten ez duen taldeak lortzen du puntua. Jasotzen duen taldeak jokaldia irabazten duenean, sakerako eskubidea lortzen du eta bere jokalariek posizio bat aurreratzen dute erlojuaren orratzen noranzkoan errotazio bat eginez. Errotazioaren bidez, jokalariek sare aurrean (aurrelariak) zein atzeko aldean (atzelariak) jokatzea bermatzen da.

Bi punturen aldearekin hogeita bost puntu egiten dituen taldeak set bat irabazten du, eta hiru set irabazita, partida irabazten du. Partida setetan banatzen da. Partida 5 setetako onenak irabaziko du. Set bat irabazteko, hogeita bost puntu lortu behar dira, aurkariari bi puntuko aldea aterata. Ez dago mugarik, eta beharrezkoa da bi puntuko abantaila izatea. Adibidez, emaitza 30-28 izan liteke. Bosgarren seta modu berean garatuko da, baina bi punturen aldearekin hamabost puntura iristen den lehen taldeak irabaziko du.

2. APLIKAZIO EREMUA

- 2.1 Eskola kiroleko lehiaketei buruzko araudiak arautuko du Arabako Boleibol Federazioak (ABF) eskola kirolaren arloan Arabako Foru Aldundiarekin (AFA) batera antolatutako lehiaketen funtzionamendua.
- 2.2 Oinarri hauek interpretatzea ABFri eta AFARI dagokie. ABFk antolatutako lehiaketetan parte hartzen duten Arabako boleiboleko kirol erakunde guztiek lehiaketa arau hauek ezagutu eta bete beharko dituzte.

3. LEHIAKETAK

Honako hauek dira Arabako Boleibol Federazioak (ABF) deitu eta, hala badagokio, antolatzen dituen eskola kiroleko boleibol lehiaketak (mutilak, neskek eta mistoak) mutilenak zein neskenak eta/edo mistoak:

IZENA	MODALITATEA
Minibolei liga	Mistoa
Haurren liga	Neskak eta mistoa
Kadeteen liga	Neskak eta mistoa
Gizonezkoen Liga	Kimuak eta Haurrak, Gizonezkoak

* Gizonezkoen Eskola Liga kimuen eta haurren kategoriek osatuko dute. Ezin izango da bigarren urteko benjamin kategoriako jokalaririk inskribatu, ezta lehen urteko kadeterik ere.

4. ESKOLA KIROLARIEK ADINEZ DAGOKIENAREN HURRENGO BEHERAGOKO KATEGORIAN PARTE HARTZEA

4.1 Adinez dagokienaren hurrengo beheragoko kategorian parte hartu ahal izango dute eskakizun hauek betetzen dituzten eskola umeek:

- Parte hartu nahi den kategoriari dagokion urtearen aurrekoan jaio izana.
- Ikastetxeetako taldeen kasuan, pertsona hori ikastetxekoa izatea, eta irabazteko xederik gabeko erakundeen kasuan, kirolaria aurreko ikasturtean erakunde horretan egon izana.
- Kirol erakundeak idatziz konpromisoa hartzea honako baldintza hauek betetzeko:
 - Baimendutako jokalaria bakoitzak jokatzen emandako denboren batura ezin daiteke izan partidaren iraupen osoaren ehuneko 50 baino gehiago.
 - Goragoko kategoriako kirolariek talde berean parte hartzeko baimen bat baino gehiago izanez gero, kirolari horiek debekatuta izango dute aldi berean jokatzea.

4.2. Kirol arloan eskumena duen zuzendaritzaren titularrak, salbuespen gisa, artikulua honetan ezarritako baldintzak betetzen ez dituzten eskaerak baimendu ahal izango ditu, kontuan hartuta modalitate edo diziplina jakin batzuetan edo udalerrri jakin batzuetan taldeak egiteko egon daitezkeen zailtasunak, edo taldeetan desgaitasuna edo premia bereziak dauzkaten kirolariak daudela.

4.3 Artikulu honetan aipatzen diren kirolariak dituzten taldeak partaidetza ibilbideko lehiaketetako sailkapenen azken faseetan edo lehenengo postuetan sartu ahal izango dira.

5. HAMAZAZPI URTEKO KIROLARIEN PARTE HARTZEA

5.1 Hamazazpi urteko kirolariek eskola kirolean beren adinaren araberako kategoriaren azpikoan parte hartzeko, ezinbestekoa da baldintza hauetako bat betetzea:

- a) Bizi den udalerriko kategoria baxuagoko talde batean aritzea, udalerrian dena delako modalitatean edo diziplinan haren kategoriako kirol talde federaturik ez dagoelako.
- b) Aurreko ikasturtean talde berean jardun izana.
- c) Desgaitasun edo premia bereziren bat edukitzea.

5.2 Halaber, adinaren araberakoa baino maila bat beheragoko kategorian lehiatzeko araudi honen 4.1 c apartatuan ezarritakoak bete beharko dira.

6. TALDE MISTOAK

6.1 Partaidetza ibilbideko lehiaketetan talde mistoek parte hartu ahal izango dute.

6.2 Talde mistoentzat lehiaketa bat antolatu ezin den kasuetan, lehiaketa horiek nesken edo mutilen lehiaketetan sartuko dira, kideen genero gehiengoaren arabera.

6.3 Partaidetza ibilbideko lehiaketen ondorioetarako:

- Mutilen taldeetat joko da gehienez ere kirolari neska bat dagoen taldea. Era berean, nesken taldeetat joko da gehienez ere kirolari mutil bat duen taldea.
- Talde misto gisa onartuko dira sexu bakoitzeko gutxienez bi partaidek osatutako taldeak, eta osaera horri denboraldi osoan eutsi beharko diote.
- Partida guztietan bi sexu-etako kirolariek parte hartu beharko dute.

7. KIROLARI TRANSEXUALAK

Kirolariak eskola ume transexualak direnean, beren sexu edo genero identitatea hartuko da kontuan, hau da, sentitzen duten sexua edo generoa.

8. ESKOLA LIZENTZIAK AURKEZTEA

- 8.1 Parte hartzen duten talde guztiek eskola kiroleko lizentzia aurkeztu beharko diote arbitro taldeari partida edo lehiaketa bakoitza hasi baino lehen (baliozkoa, euskarri elektronikoan edo digitalean nahiz euskarri fisikoan edo paperean), behar bezala baliozkotua eta argazki eguneratua duena.
- 8.2 Lizentziaren bat aurkezten ez bada, horren berri eman beharko da aktan edo txostenean, diziplina erantzukizunik dagoenez erabakitzeke. Nolanahi ere, proba jokatu beharko da, ezohiko inguruabarren bat gertatu ezean (hala bada, frogatu egin beharko da).

9. ARAUZ KONTRAKO JOKALARI ZERRENDA

- 9.1 Talde batek partida batean jokalaria bat sartzen badu arauz kontrako edo okerreko jokalaria zerrenda eginda, zehapen hauek izango ditu:
- a) Lehenengo arauz kontrako jokalaria zerrenda: partida bi edo hiru set eta hutseko emaitzaz galduko du, kategoriaren arabera.
 - b) Bigarren arauz kontrako jokalaria zerrenda txapelketa berean: partida bi edo hiru set eta hutseko emaitzaz galduko da, kategoriaren arabera, eta sailkapen orokorrean bi puntu kenduko zaizkio.
 - c) Hirugarren arauz kontrako jokalaria zerrenda txapelketa berean: taldeak izan litzakeen eskubide guztiak galduko ditu. Hala ere, partidak jokatzen jarraitu ahal izango du, haiek sailkapenerako punturik eman gabe.
- 9.2 Ez dago baimenduta kirolariek parte hartzea eskola kirolaren aplikazio informatikoan inskribatuta dauden erakunde bereko taldeetan ez behin-behinean ez betiko. Beraz, ez dago baimenduta partida jakin batzuetarako kirolariak kategoriaz igotzea.
- 9.3 Deskalifikatutako taldeak lortutako emaitza guztiak sailkapen orokorretik ezabatuko dira.

10. EZIN IZANGO DA KIROLARIEN DEIALDIRIK EGIN EMAITZEI BEGIRA.

- 10.1 Ezin izango da kirolarien deialdirik egin emaitzei begira. Honako arrazoi hauetakoren batengatik lehiaketa jardunaldi batean parte hartzeko kirolari bat bazterten bada, deialdi hori emaitzei begira egindakoa izango da, arrazoi hauetakoren bat tarteko egon ez bada:
- a) Lesioa edo gaixotasuna.
 - b) Erakundearen diziplina neurria.
 - c) Eskola kirolaren diziplina araubidean oinarritutako zehapena.
 - d) Eskola umearen ezintasuna, familiak erabakita edo ezinbesteko beste arrazoi batzuegatik.

e) Izena eman duten ikasleen kopurua gehienez deitu daitezkeen kirolarien kopurua baino handiagoa denean. Kasu horretan, jardunaldietara joan gabe geratzen diren kirolariak modu ekitatiboan banatu beharko dira, izena eman duten kirolari guztiek antzeko topaketa kopuruan parte har dezaten.

10.2 Emaiztezi begira egindako deialdiak hautematen diren entitateetako taldeek:

- o Ez-betetzea egin diren partidak galdu egingo dituzte.
- o Ezin izango dute lehiaketako lehen postua lortu.
- o Ezin izango dute parte hartu hurrengo ikasturteko errendimendu ibilbideko lehiaketetan.

11. MINI BOLEIBOLA (benjaminak eta kimuak)

11.1 Joko zelaia.- Joko zelaiak honako neurri hauek izango ditu: 12 metro luze eta 6 metro zabal; hau da, talde bakoitzari dagokion zelai bakoitza 6x6 metroko karratu bat izango da.

11.2 Sarea. - Kategoriaren arabera, sarearen altuera honako hau izango da:

Kategoria	Mutilak	Neskak
Kimuak	2,10 m	2,10 m
Benjaminurrekoak, benjaminak	2,00 m	2,00 m

11.3 Baloia.- Baloiak esferikoa eta larru malguzkoa izan behar du, eta barruan gomazko edo antzeko materialez egindako ganbera eduki. Baloia zirkunferentzia 65 eta 67 cm bitartekoa izango da. Eta pisua, 260 eta 280 g bitartekoa. Arabako Boleibol Federazioak antolatutako lehiaketetako baloi ofiziala Molten V4M1500 izango da.

11.4 Jokalariak.- Arabako eskolarteko jokoetan parte hartzeko, gutxienez 4 kirolari eta gehienez 14 izan behar dira. Horietako lau, nahitaez, kantxan egongo dira. Gainera, nahitaezkoa izango da jokalaria guztiek gutxienez set oso bat jokatzea.

11.5 Entrenatzailea.- Beharrezkoa izango da talde guztietan CUDEn alta emandako entrenatzaile - hezitzaile bat egotea.

11.6 Partiden iraupena.- Partida setetan banatzen da. Hiru (3) setetan onenak irabaziko du partida; set bat irabazteko, hogeita bost puntu lortu behar dira eta bi puntuko aldeaz irabazi beharko zaio aurkariari. Hirugarren setera iritsiz gero, hamabost puntu lortu beharko dira eta bi puntuko aldeaz irabazi beharko zaio aurkariari.

11.7 Sakean errotazioa egitea.- Jokalari batek 3 sake jarraian egin baditu, nahitaezkoa izango da errotazioa egitea, eta horrela posizioan dagoen hurrengo jokalaria sakea egitera pasako da.

12. BOLEIBOLA (gainerako kategoriak)

12.1 Joko zelaia.- Joko zelaiak honako neurri hauek izango ditu: 18 metro luze eta 9 metro zabal; hau da, talde bakoitzari dagokion zelai bakoitza 9x9 metroko karratu bat izango da.

12.2 Sarea. - Kategoriaren arabera, sarearen altuera honako hau izango da:

Kategoria	Mutilak	Neskak
Kadeteak	2,37 m	2,18 m
Haurrak	2,24 m	2,10 m

- 12.3 Baloia.-** Baloia esferikoa eta larru malguzkoa izango da, eta barruan gomazko edo antzeko materialez egindako ganbera eduki. Baloiaren zirkunferentzia 65 eta 67 cm bitartekoa izango da. Eta pisua, 260 eta 280g bitartekoa. Arabako Boleibol Federazioak antolatutako lehiaketetako baloi ofiziala Molten V4M1500 izango da. Hala ere, RFEVBko senior lehiaketetako Molten V5M5000 baloi ofiziala baimenduko da.
- 12.4 Jokalariak.-** Arabako eskolarteko jokoetan parte hartzeko, gutxienez 8 kirolari eta gehienez **14** izan behar dira. Horietako lau, nahitaez, kantxan egongo dira. Gainera, nahitaezkoa izango da jokalari guztiek gutxienez set oso bat jokatzea.
- 12.5 Entrenatzailea.-** Beharrezkoa izango da talde guztietan **CUDEn alta emandako** entrenatzaile - hezitzaile bat egotea.
- 12.6 Partiden iraupena.-** Partida setetan banatzen da. Partida 5 setetako onenak irabaziko du. Set bat irabazteko, hogeita bost puntu lortu behar dira eta aurkariak baino bi puntu gehiago izan behar du irabazleak. Bosgarren set-era iritsiz gero, bi puntuko aldeaz irabazi beharko da, eta kasu horretan ez da mugarik izango. Bosgarren set-a irabazteko, hamabost puntu lortu behar dira, aurkariari bi puntuko aldea aterata.
- 12.7 Jokalariak aldatzea.-** Boleibol arauetan ezarrita dagoenez, talde batek guztira sei aldaketa egiteko eskubidea du, baldin eta honako arau hau betetzen bada: "ordezko jokalaria bat jokoan sar daiteke, baina set bakoitzean behin bakarrik eta hasierako seikoan jokatu duten jokalarietako baten ordeztu; gainera, aipatutako jokalariak bakarrik ordeztu ahal izango du hura".
- 12.8 Tantoak.-** Tantoa lortzeko, ez dago sakerako txanda eduki beharrik; hau da, jokaldian hutsik egiten ez duen taldeak irabaziko du tantoa.

13. ARBITRAJEAK

Arbitro lana Arabako Boleibol Federazioaren ardurapekoa izango da. Federazio horrek aukeratuko ditu partidetan jardungo duten arbitroak.

Arbitroek baldintza hauek bete behar dituzte:

- 1) Inskribatzean honako adin hau edukitzea gutxienez:
 - a) Hamasei urte eduki behar dira benjamin, kimu eta haur kategorietako partidetan edo probetan arbitro aritzeko.
 - b) Hemezortzi urte eduki behar dira kadete kategoriako partidetan edo probetan arbitro aritzeko.
- 2) Eskola lizentzia eduki behar dute.

14. PARTIDEN ORDUTEGIA

Etxean jokatzen duen taldeak, nahitaez, partida zer ordutan eta lekutan jokatu behar den jakinarazi beharko dio Federazioari, partida hori jokatu aurreko asteleheneko 12:00ak baino lehen.

15. PARTIDETARA EZ AGERTZEA

Ezarritako egutegian adierazitako orduan partida jokatzerara agertzen ez diren taldeek honako zigor hauek jasoko dituzte:

- a) Lehenengo ez-agertzea: partida hiru set eta hutseko emaitzaz galduko da.
- b) Bigarren ez-agertzea lehiaketa berean: partida hiru set eta hutseko emaitzaz galduko da eta sailkapen orokorrean hiru puntu kenduko dira, eta

- c) taldeak izan litzakeen eskubide guztiak galduko ditu. Hala ere, partidak jokatzeko jarraitu ahal izango du, haiek sailkapenerako punturik eman gabe.

16. JOKALEKUA ESKATZEA

Boleibol partidak jokatzeko instalaziorik ez duten kirol erakundeek denboraldia hasi baino lehen eman beharko diote horren berri Arabako Boleibol Federazioari. Federazio horrek Gasteizko Udalaren zelaia eskleituko ditu partidetarako.

17. INSTALAZIOAK

Kirol lehiaketak edo jarduerak egiten diren kirol instalazioetan aldagelak egon behar dira.

Gainera, trans kirolariei bermatu beharko zaie askatasunez sentitzen duten sexuari edo generoari dagozkion instalazioak (komunak, aldagelak eta abar) erabili ahal izatea.

18. PARTIDEN ORDUTEGIAK

Lehiaketa eguna larunbata izango da, eta partida hasteko azken ordua 9:00etatik 13:30era bitartekoa izango da.

Orduz aldatu nahi duen taldeak jakinarazi beharko dio nahitaez Federazioari. Hala ere, ez da orduz aldatuko talde aurkariaren adostasunik gabe. Kontrako taldeari eta Arabako Boleibol Federazioari 48 ordu lehenago jakinarazi beharko zaie.

19. LEHIAKETA EGUTEGIEN ALDAKETAK

Lehiaketen egutegia ezinbestezko arrazoiengatik baino ez da aldatu ahal izango. Edozein arrazoiengatik (elkarrekin bizitzeko aldiak, ikasketa amaierako bidaia, eta abar) beharrezkoa bada partidaren bat geroratzea, talde aurkaria ados dagoela eta partida zein egun eta ordutan jokatu den aurkeztu beharko da. Edozein egoeratan, Arabako Boleibol Federazioari idatziz eskatu beharko zaio gutxienez HAMABOST EGUN (15) lehenago, NGC 06 agiria beteta.

Arau horietako atalen bat betetzen ez bada, diziplina araudiko ez-agertzei buruzko artikulua aplikatuko dira.

20. EUSKADIKO ESKOLARTEKO KIROL JOKOAK

Kirolari guztiak haurren kategorian dituela (2012an edo 2013an jaiotakoak), sailkapen onena lortzen duen taldeak Arabako ordezkari gisa parte hartuko du Euskadiko Eskolarteko Kirol Jokoetan.

21. KIROLTASUNA SUSTATZEA

Partidetan, talde bakoitzak aurkariari bere "ikur adierazgarria" eman beharko dio (kamiseta, maskota, etab.) kapitainaren bitartez. Partidak irauten duen bitartean ikur horrek aulkian egon beharko du errespetu gisa. Partida amaitutakoan, ikurrak itzuli egingo dira. ABFK eta AFAk modu horretan nahi dutena da gatazkak saihestea harmailetan, kantxetan eta/edo partidak egiten diren instalazioetatik kanpo.

22. HARMAILETAN ERRESPETUA SUSTATZEKO PROTOKOLOA

Eskola-kirola hezkuntza-, bizikidetza- eta errespetu-iturri izan dadin, "Eskola-kiroleko harmailetan errespetua sustatzeko jarduera-protokoloa" aplikatuko da lehiaketa guztietan.

23. DIZIPLINA ARAUTEGIA

Eskola Kiroleko Lehiaketen Diziplina Araubideari buruzko uztailaren 23ko 391/2013 DEKRETUA aplikatuko da

ARAUTEGI HONETAN JASOTZEN EZ DIREN JOKO EGOERA GUZTIAK BOLEIBOL BATZORDE NAZIONALAREN BOLEIBOLEKO ARAUEI JARRAITUZ EBATZIKO DIRA.